

Euskararen Gaitasun Agiria

IDAZLANA 07-03-17

1. Argi idatzi behar da, eta albait garbien.
1. Idazlanak gutxienez 300 hitz izan behar ditu.
2. Idazlanaren kalifikaziorako ondoko hiru alderdi hauek izango dira ardatz:
 - a) gaiaren eraketa eta garapena;
 - b) hizkuntza-aberastasuna eta zehaztasuna;
 - c) zuzentasuna.
4. Orrialde bat izango duzu gidoia egiteko, apunteak biltzek ... Ez da zuzenduko.
5. Hurrengo orrialdeetan bi gai proposatzen zaizkizu, bat aukeratu eta garatzeko. Gaiak garatzeko, laguntza moduan, dossier bana eta puntu batzuk dituzu: galderak, gogoetak, iritziak... Ez dira nahitaez kontuan hartu beharrekoak; zuk zeuk aukeratutako bestelako ikuspuntu edo alderdi batzuetan oinarriturik ere egin dezakezu.
6. Aukeratutako gaia garatzeko iritzi askatasuna duzu. Beti ere, begirunez joka ezazu: saihestu jarrera sexistak, homofoboak, arrazistak...

GATA

EMAKUMEEN AURKAKO BORTXA

Emakumeen aurkako erasoen albisteak egunero

A. Cortina, soziologoa:

"Berdintasunak

gizonezkoaren indarkeria eragiten du; egin du jasan emakumea bere parean jartzeko"

Emakumeen aurkako indarkeria leporatuta, 902 gizon atxilotu zituen iaz Ertzaintzak


Lehenengo iraina, jarraian mehatxua, aurrerago jipola, gero...

«Berdintasunak gizonago egiten zaitu»
(Emakunde)

«Garbitu egin nahi ninduen, baina maite dut, hala ere»

Erasotzailea: senarra, senar ohia, mutil laguna.

Unerik beltzenak: banaketa garaian, udako oporretan, gabonetan...



Press Photo 2005

HABE, 367 zk. 2005/03

⇒ Emakumeak bere burua eta seme-alabena babestu behar sarritan

Orri honetan dituzun testuak irakurri ondoren, idatz ezazu gaiari buruz (300 hitz, gutxienez). Ondoko puntu hauek erabil ditzakezu:

- Arazo zaharra: lehen etxe barrukoa, orain gizartean eztabaidagai.
- Lege bereziak, zigor zorrotzagoak, urrunketa, eskumuturrekoak... Zelako neurriak hartu?
- Erasotako emakume asko etsita: poliziak eta epailek ez diote jaramonik egiten arazoari.
- Herri garatuenetan ere, gizonaren bortxakeriak sustrai sakonak ditu.
- Nola hezi berdintasunean? Etxean, eskolan, lanean...



EHIZTARI ETA BILTZAILE?



EHEKAR, 129 zk. 98/03

EAE, hektareako ehiztari gehien duen lurraldea, Europan

Nafarroan 18 eta 65 urte bitartekoek %10ek dute ehiza lizentzia

☐ Perretxiko biltzeak gero eta garrantzi handiagoa du, baita ekonomia aldetik ere.




ZAKRA, 360 zk. 05/12

80ko hamarkadan, urteko 400 bat basurde ehizatzen ziren EAE-n. Gaur egun, aldiria 2.000



Hegazti migratzaileak ehizatzen diren eremurako batez ere, toki ona da Euskal Herria



EHEKAR, 129 zk. 98/03

Zientifikoek esanetan, ehiza jarduera mesedegarria da basoarentzat



Bardeetan beti egin da ehiza. Familien diru-iturri osagarri bat zen ehizakien salmenta, untxiak nagusi horien artean.

Orri honetan dituzun testuak irakurri ondoren, idatz ezazu gaiari buruz (300 hitz, gutxienez). Ondoko puntu hauek erabil ditzakezu:

- Herri industrializatua izateko, ehizarako lizentzia asko dago.
- Gaur eguneko bizimoduarekin, beharrezkoa dugu ehiza, ala denbora-pasa hutsa da? Non dago neurria? Zer erabaki hartu beharko lirateke zure ustez administrazioetatik?
- Nola uztartu mendizaletasuna eta ehiza?
- Perretxiko bilketak, behar du araurik?